

HITZ
GUTXITANMaiatzaren 10ean hasiko da bosgarren
Señora sariketa

BERTSOLARITZA— Bosgarrenez antolatuko dute aurten Señora sariketa. Urteurren hori dela eta, antolatzaileek aipatu dutenez, bertso plazetan hainbeste leku izan ez duten emakume eta genero disidenteei egingo diete lekua. Maiatzaren 10ean Eskoriatzan (Gipuzkoa), maiatzaren 17an Iurretan (Bizkaia) eta maiatzaren 31n Iruñean izango dira saioak. Larunbatean egingo dute aurkezpena, eta bertan jakinaraziko dituzte partaideak.

Orozkorock jaialdia azkenekoz
antolatuko dute, maiatzaren 24an

MUSIKA— Joan den abenduan iragarri zuten Orozkorock jaialdiko (Orozko, Bizkaia) antolatzaileek aurtengoa izango zela festibalaren azken aldia. Bada, datorren maiatzaren 24an egingo dute, eta bi gunetan egingo dituzte kontzertuak: Hegoaldeko zabalgunean eta Zubiaur plazan. Besteak beste, honako artista hauek hartuko dute parte: Bizardunak, Arene 6, Moonshine Wagon, Nevadah eta Swamp Stringband.

Dantzertik 'Eldarnio' ikuskizuna emango
du gaur, Bilboko Azkuna zentroan

ANTZERKIA— Dantzertiko ikasleen Gradu Amaierako Muntaia da *Eldarnio*. Jokin Oregik zuzendu du, eta hauek hartuko dute parte: Gabriela Arranzek, Andres Cortesek, Andrea Gallegok, Maite Gandiak, Aitziber Ruizek, Ane Sarasuak eta Libe Unibasok. Mendian girotuta dago obra, eta Leireren istorioa kontatzen du. Protagonistak erantzunak behar ditu, eta horien bila arituko da antzezlanean. Atzo estreinatu zuten, Bilboko Azkuna zentroan. Gaur ere egingo dute emanaldia, 19:00etan. Sarrerak doakoak dira, eta Azkuna zentroaren webgunean eskuratu daitezke.



Maixa Zugasti Zozabarrak eleberria eskuetan duela, aurkezpenaren egunean. MAIALEN ANDRES / FOKU

Maixa Zugasti jazarpenaz aritu
da 'Zozabarrak' liburuan

→ Eleberri laburra da, eta June da protagonista; lehen pertsonan idatzita dago.

→ Idazleak nerabeentzat sortu du kontakizuna, eta Erein argitaletxeak plazaratu du.

Beñat Mujika Telleria

DONOSTIA— «Ustekabeko ikasge-la aldaketak hankaz gora jarriko du Juneren bizitza. Indarkeria ezagutuko du; eta izua». Horixe du abiapuntu Maixa Zugastiren liburu berriak: *Zozabarrak*. Erein argitaletxeak plazaratu du. Berezi ki nerabeentzat dago pentsatuta, eta erabateko aktualitatea duen gai bat jorratu du autoreak: eskola jazarpena. Irakasle izandakoa da Zugasti, eta bere bizipenek lagundu diote eleberria ontzen. Adierazi duenez, «garrantzi handiko» liburua da beretzat. «Edukiagatik eta nire bidean suposatu duenagatik».

Lehen pertsona erabili du idazleak. June da eleberriko protagonista, eta haren hitzen bidez kontatzen dira abusua. «Une larriena jolas orduan gertatu zen», dio narratzaileak hirugarren atalean. «Patiora bidean sentituen bizkarrean lehen bultzada. Gogorraren astindua. Eta piririka jaitsi nituen mailak. Horregatik eseri nintzen futbol zelaiaren ertz batean bakar-bakarrik». Izenburua ez da nolanahi aukeraturakoa. Zozabarrak hegaztiak dira. Talde oso handietan ibiltzen dira, eta denek elkarrekin egiten dute hegan. Liburuan une oro ikus daiteke hegazti horien presentzia; baina metafora moduan erabili ditu autoreak. Zugasti:

«Zozabarrak taldean bizi dira. Gu ere bai. Ederra da zozabarren dantza, baina baita hegazti bakar-tien hegaldia ere».

Uxue Razkin Ereineko editoreak eman du eleberriaren bestelako xehetasunen berri: «Zaila izaten da, batzuetan, ipuinen edo istorioen bidez eskola jazarpenari buruz hitz egiten denean sinesgarritasuna lortzea. Garrantzitsua da enpatia eta sinesgarritasuna lortzea, eta horri indarra ematen dioten lau ardatz ditu kontakizun honek: protagonistaren beldurra, etxeko giroa eta isiltasuna, eskolaren jarrera eta adiskidetasunaren indarra». Horretarako, ezinbestekoa da gainerako pertsonaien presentzia. Protagonistaz gain, beste pertsonaia hauek aurkituko ditu irakurleak, besteak beste: Juneren gurasoak, ikastetxe

zuzendaria eta irakasle bat, eta Loreto eta Maria adiskideak.

Zugastiren estiloaz ere mintzatu da Razkin: «Naturari keinu egiten dio istorio osoan. Errealitatearen eta metaforaren arteko konexio horrek indarra ematen dio istorioari. Batzuetan, zer kontatu baino gehiago, nola kontatu da garrantzitsuenak. Eta metafora hori konstantea da liburuan».

Liburuarekin, behar duen garrantzia eman nahi izan dio Zugastik eskola jazarpenaren eta ziberjazarpenaren gaiari, eta zenbait datu eman ditu. «Euskal gobernuaren arabera, EAEn, 2022-2023ko ikasturtean, 218 kasu baieztatu ziren, aurreko urtean baino %39 gehiago. Datu ofizialak dira, salatu eta onartzen direnak... Zenbakiak gorantz doaz, eta baita sufrimendua ere, ziberjazarpenak ohikoa biderkatu egin baitu». Horregatik, arreta ez du jarri soilik jazarriaren, baizik baita jazarlearen ere. Zugasti: «Egunero, etxera iristean, inguruan eta gainein dituzte erasotzaileak babesten dituzten begirada konplizeak; baita isiltasuna eta ukazioa ere. Asko dira egunero-egunero baztertuak, ikusezin sentitzen direnak. Infernuan erasotzailea babesten baita, eta biktima da errudun sentitzen dena. Eta, horregatik, egunero sentitzen dira bakarrik, triste eta beldurtuta. Egunero-egunero». ●



«Asko dira egunero ikusezin sentitzen direnak. Infernuan erasotzailea babesten baita, eta biktima da errudun sentitzen dena»

MAIXA ZUGASTI
Idazlea

